

Sarearen neutraltasuna arriskuan

Sareko neutraltasuna babestea ezinbestekoa da Internet aske eta ireki bat lortzeko. Baina badirudi gero eta zailago egiten ari zaigula neutraltasun horri eustea.

Gai polemiko horri buruz ariketa hauek proposatzen dizkizugu:

- Zein da zure esperientzia? Galderei erantzun eta taldean komentatu.
- Audioa entzun ondoren, galderen erantzun zuzenak aukeratu.
- Artikulua irakurri ondoren, falta dituen hitz egokiekin osatu.
- Artikuluan irakurritakoa kontuan hartuta, galderei erantzun eta komentatu taldean.

Sareko konexioak: zein da zure esperientzia?


Sekuentzian sartzerako, gaiari buruz duzun esperientziaz hitz egingo duzu. Erantzun beheko galderei eta komentatu taldean.



- Zure etxean, kalean edo lantokian, askotan konektatzen zara Internetera? Zein zerbitzu erabiltzen duzu? Youtube, Facebook, Netflix...
- Sarean nabigatzean, ordaintzen duzunarekin eta lortutako konexio-abiadurarekin gustura zaude?
- Zure operadoreak esango balizu hemendik aurrera zerbitzu jakin batzuk erabiltzeko diru gehiago ordaindu behar duzula, zer irudituko litzaizuke? Gaur egun, horretarako arriskurik ikusten duzu?

Akabo sarearen neutraltasuna?

Erreportaje honetan Gorka Juliok Interneteko neutraltasuna eta askatasunari buruz hitz egingo digu. Entzun ondoren, galderen erantzun zuzenak aukeratu.



<https://labur.eus/1Tycr>

1. Zer erabaki du Estatu Batuetako Komunikazioen Batzorde Federalak?

- Sareko hornitzaileei sareko edukietan nabigatzeko zuten askatasuna kentzea.
- Sareko erabiltzaile eta partikularrei sareko zenbait edukitan sartzeko erraztasunak ematea.
- Sareko hornitzaileei abiada ezberdinak eskaintzeko aukera ematea, sareko zenbait eduki zabalduz eta beste batzuk zailduz.

2. Gorka Julio ingeniariak dio erabaki honekin sare-neutraltasuna apurtuko dela. Zer esan nahi du honek?

- Hemendik aurrera, sarerako konexio guztietan diru gehiago ordaindu beharko dela.
- Erabiltzaileek sareko informazioa aurkitzeko orduan zailtasun handiak sortuko direla.
- Hemendik aurrera, sarearen barnean gerta litekeela datu batzuk azkarrago joatea edota beste batzuk oztopatzea.

3. Zer ondorio sortuko ditu Estatu Batuetan hartutako erabaki honek?

- Ezberdintasun gehiago sortuko dira, hornitzailearen ordaintzeko gaitasunaren arabera, eduki batzuetan mantsoago edo azkarrago sartuko baikara.
- Ideia edo negozio berriei bestelako aukera batzuk zabalduko zaizkie.
- Sarerako konexioa, orokorrean, asko garestituko da.

4. Estatu Batuetan hartutako erabaki honek eragingo al digu? Zer dio honetaz Gorka Juliok?

- Bai, txarrerako eragingo digu, honek sor dezakeen aurrekariarengatik.
- Ez, ez du legedia hori Euskal Herrian aplikatzeko arriskurik ikusten.
- Ez dago ziur, Estatu Batuetan egiten denaren kopia txarrak egiten ditugu-eta, zenbaitetan.

Sareari agur?

Artikulu honetan, Estatu Batuetan hartutako erabakiak dituen zenbait arrisku eta ondorio azaltzen dira. Irakurri arretaz eta aukeratu hitz egokia hutsune bakoitzerako.

Aukerak:

ahalmena / lehentasuna /
 Ezinbestekoa / adierazpen askatasunari
 / irudi eskubide / Bidegabekeria /
 zirkulatzeko ahalmena / neutraltasuna /
 zerbitzu gutxiago



AGUR, INTERNET

Sarearen neutraltasuna amaitzear dago. Datorren astean, AEBetan, erabakiko dute hornitzaileei (1) ematea aurrerantzean eduki batzuk lehenesteko. Orain arte ezagututako Interneten amaiera ekarriko al du horrek?

Autobidean auto pilaketa dago. Gidariekin, erabat gelditu ez arren, polikiago ibili behar dute. Aldamenean, beste lerro bat dago libre, baina ezin dute horretara pasatu, galarazia dutelako. Izan ere, autobidea kudeatzen duen enpresak erabaki du lerro azkarretik auto garestiak bakarrik ibili ahalko direla.

(2) begi bistakoa da aurreko similean, diskriminazioak autobideen neutraltasuna hautsiko lukeelako. Bada, Internetekin hori gertatzen ari da. Sarearen printzipio sakratuetako bat izan da, orain arte, informazio guztiak abiada berarekin (3) izatea. Printzipio hori kolokan jartzen ari dira, orain, hainbat herrialdetan.

Datorren asteazkenean, Interneten (4) [redacted] bermatzeko arauak bertan behera uztea erabakiko du AEBetako Komunikazio Batzorde Federalak (FCC). Arau horiek ziurtatzen dute gune guztiek aukera bera izango dutela jendearengana heltzeko. Neutraltasuna kentzen badute, ordaintzen duten guneek (5) [redacted] izan dezakete sarean, edo Internet hornitzaileek bezeroak behartu ditzakete gehiago ordaintzera aplikazio batzuk erabili nahi badituzte.

Orain arte ezagututako Interneti agur esatea ekar dezake horrek. Zerbitzuak bereizi nahi dituzte, eta bakoitza bere aldetik kobratu. Eta, askoren arabera, horrek zera ekarriko du: gehiago kobratuko dizutela, eta (6) [redacted] eman. AEBetan onartuko duten erreformaren bidez, hornitzaileak trafikoaren zaindari bihurtuko dira, eta ordaintzen dietenei abantaila emango diete.

Marra gorriak

«Diru kontu hutsa da datorren astean gertatuko dena: edukiak sortzen dituztenen eta telekomunikazio konpainien artekoa», esan du Guifi.net egitasmoaren sortzaile Ramon Rocak. «(7) [redacted] da gatazka honek kalte ez eragitea funtsezko gauzei: esaterako, (8) [redacted], edukien neutraltasunari eta loturen neutraltasunari». Gauza bat da hornitzaileak erabakitzea ezin dela futbola Interneten doan ikusi, horrek (9) [redacted] batzuk dituelako, Rocak azaldu duenez. Baina erabakitzea ezin dela Youtube edo Wikipediara sartu gehiago ordaindu gabe, «hori marra gorriak gurutzatzea litzateke».

www.berria.eus webgunetik hartua. Bertsio laburtua.

Internet eta neutraltasuna: Zein da zure iritzia?



Testuan irakurri berri duzuna gogoan, erantzun beheko galderari eta taldean komentatu. Saiatu beheko adibideetako egiturak edo antzekoak erabiltzen.

1. AEBetako batzorde federalak hartutako erabakiaren zenbait ondorio aipatzen dira testuan. Ondorio horiek larriak iruditzen zaizkizu? Zergatik?
2. Testuan dioenez, "Neutraltasuna kentzen badute, ordaintzen duten guneek lehentasuna izan dezakete sarean, edo hornitzaileek bezeroak behartu ditzakete aplikazio batzuk gehiago ordaintzera". Arriskurik ikusten duzu European ere gauza bera gertatzeko?

IRITZIA EMATEKO MODUAK:

- **Begi-bistakoa** da erabaki honek gurean ere eraginik izan dezakeela.
- **Ez dut uste** epe motzean erabaki honek European eragin zuzena izango duenik. **Baliteke** denborarekin European antzeko Legea aplikatzea, baina oraindik interneteko neutraltasuna ondo babestua dago eta oraingoz zail ikusten dut.
- Estatu Batuetan hartutako erabaki honen **ondorioz**, dauden interesen arabera, sareko zenbait informazio eskuratzeko zailtasun gehiago **egon daitezke**. Eta nik **esango nuke** hori oso ondorio larria dela.

Zuzenketa-orria

Akabo sarearen neutraltasuna?

1. Zer erabaki du Estatu Batuetako Komunikazioen Batzorde Federalak?

✓ Sareko hornitzaileei abiada ezberdinak eskaintzeko aukera ematea, sareko zenbait eduki zabalduz eta beste batzuk zailduz.

2. Gorka Julio ingeniariak dio erabaki honekin sare-neutraltasuna apurtuko dela. Zer esan nahi du honek?

✓ Hemendik aurrera, sarearen barnean gerta litekeela datu batzuk azkarrago joatea edota beste batzuk oztopatzea.

3. Zer ondorio sortuko ditu Estatu Batuetan hartutako erabaki honek?

✓ Ezberdintasun gehiago sortuko dira, hornitzailearen ordaintzeko gaitasunaren arabera, eduki batzuetan mantsoago edo azkarrago sartuko baikara.

4. Estatu Batuetan hartutako erabaki honek eragingo al digu? Zer dio honetaz Gorka Juliok?

✓ Bai, txarrerako eragingo digu, honek sor dezakeen aurrekariengatik.

Sareari agur?

1. ahalmena / 2. Bidegabekeria / 3. zirkulatzeko ahalmena / 4. neutraltasuna / 5. lehentasuna / 6. zerbitzu gutxiago / 7. Ezinbestekoa / 8. adierazpen askatasunari / 9. irudi eskubide

Transkripzioa

ESATARIA.- Notizia atzokoa da, nola Estatu Batuetan komunikazioen batzorde federalak erabaki duen sareko hornitzaileei zenbait eduki zabaldu, beste batzuk zaildu, eta abiada ezberdinak eskaintzeko aukera ematea, eta honek sareko erabiltzaileen arteko aldea sortuko du. Sareko mundu irekian itxiturak, sare horizontalenean hierarkiak ez direla desagertzen alegia. Kontua ulertzen laguntzeko Gorka Juliori eskatu diogu etortzeko, Talaios kooperatiban egiten du lan, ingeniari informatikoa da, gure tekno taldeko kidea. Kaixo Gorka!

GORKA.- Kaixo!

ESATARIA.- Zer esan nahi du honek?

GORKA.- Beno. Saiatuko gara hasieratik eta ondo azaltzen. Erabakia izan da, eta ez dago gainera, ez da izan aho batez esaten dena, ez? Eztabaida oraindik piztuta dago, eta justu-justuan aprobaturakoa (onartutakoa) da, baina. Utzi dituzte, alboratu dituzte edo deuseztatu dituzte neutraltasuna defendatzen zuten neurriak Estatu Batuetan. Zer da hori?

Neutraltasuna, sare-neutraltasuna da zuk zure hornitzailearekin edo kontratatzen duzu zerbitzu bat, izan daiteke 100 mega edo dena delakoa eta horrek ematen dizu sarrera internetera, bai? Baina, interneten zaudela, bertan dauden edozein zerbitzu edo datu-motarengatik edo edukiengatik ez dago bereizketarik edo ez du egon behar bereizketarik eta beraz, honek horrekin apurtzen du. Hau da: hemendik aurrera aukera egon liteke datu batzuk azkarrago joatea, beste batzuk oztopatzea, edo dena delakoa, sare horren barnean. Eta horrek eragingo luke baita ere eskaintzan. Hau da: gerta daiteke hornitzaile batek esatea, begira, zuk YouTube erabili nahi baduzu edo YouTube era azkarrean erabili nahiko bazenu, hori nolabait azkartuko duen zerbitzua erosi beharko zenuke, eh. Igual zure konexioari gehi bost euro ordainduta urtean. Ulertzeko, telebista kable ..

ESATARIA.- Ordainpeko telebista, ..

GORKA.- Ordainpeko telebistaren antzeko gauzak gerta daitezke. Baina, finean hori da: da, nolabait apurtzen da, edo aukera irekitzen da eduki batzuk hobestu (hobetsi), beste batzuk ukatu, eta ezberdintasunak sortzeko, beste ezberdintasun bat, ze ez da bakarra, orain arte hornitzaileak pagatzeko ahalmenaren arabera azkarrago edo mantsoago zoaz. Baina, beste desberdintasun batzuk gehitzeko aukera irekitzen da. Ze, oraintxe bertan guk eduki ahalko genuke, dauzkagun prezioak osea prezioak dira Europarekin alderatuz, adibidez, baita ere hornitzaile mailan e.

ESATARIA.- Garestiak

GORKA.- Oso garestiak dira. Eduki beharko genituzke gigak, gigatako konexioak bai? Prezio berean, eta ez dauzkagu. Hori gauza bat da, baina gainera orain negozio gehiago egin nahi dute honekin. Hori da atal garrantzitsu bat kontuan hartzekoa, eta bigarren atal garrantzitsua igual da hasieratik interneten hor ematen zuten neutraltasun eta askatasun maila hori kontuan hartuta, ideia berriak, negozio berriak, innobazio (berrikuntza) berriak zailtzen dituela Eta uste dut honek denak oraintxe bertan, klaro, Estatu Batuetan gertatzen denak beti eragiten digu, eta beti txarrerako eragiten digu, normalean kopiak txarrak egiten ditugu, gainera, sor dezakeen prezedente edo aurrekariengatik. Ekartzen hasten bagara horrelako legediak hona, ba, albiste txarra da, edozein kasutan. Oraindik ez dago dena galduta, hori ere bada.